

BESTE LAROGEI...USTIAN!!

Biyotzeko Joxe Manuel:

Zuk letzen eztakizunez, zue etxeko ilobak letuko dizun bildurraz bada're, zuri eskribittu biharrian arkittu naiz, orrek utzi lezakenan arrastuan jakitun. Izan'e, guriak bizik seitzen dula, guri-guriya dola ta ez Errrenteiko besti harek esaten zun modun, "iya guriak egin du"; esateko premiya nakan.

Berorri-ka asi giñan artu-emanian, zuka seittu ta azkenenian, ara...ika bukatu deu maiz, zukin iñondik iñoa bukatzeko asmoik gabe! oi bai, beste iñor bistan eztala... bestela, gue amoriyuan berri izango balue, bertsubak jarri baietz, nori ta zuri; Joxe Manuel!!

Zue egizko ofiziyuan, bersolaya izateko modun, teatro pixka- pixkat iña zea oain artian. Teatrua, zu etzean oi jendiai xinixtuazteko. Erriyak estimatzen dun "Txirrita", lotsagabia, tripazalia ta jakintsuba da. Baño nik ordia, bestia ezautu det: Joxe Manuel lotsati, goxua ta ezjakiña; amoriyo kontutan beintzat; Norteko ferrokarrillan baporiak baño beruo jartzen nauna.

Iñatzuko sardoteitan asi zan dana. Beste etxietan apopilo eoten ziñaten 3 eunian, andik atea gabe, ean ta ean; bertsuba besteik etzenetula abian. Bertsuba...ta zurruta!! Ta ainbeste denboa ta geo, azkeneako mingaña miztua zan, orduarte launak zianakin etsaitzen asiyak izaten ziñaten, ainbeste jardun ta geo.

Ta ordun, apopilo zeuden aitako batzun andriak erropa garbiyak eamatea jundakuan, armoniyan istilluka asiyak ziñatela ikusitakuan, "Muturjoka asi baño len, etortzia duela trikitilayak!!" aintzen zuen. Ta ala, gu juten giñan ara, ta itzan akelarriak aurrea seitzen zun beste pare bat eunez, musikan konpañin.

Ta akelarriak ekarri biartzuna ekarri zun, sorginkeya. Aitako batian, launak iji ta aja zebiltzala, eanak erabat; zu ne anka zuztarrei beida arrapatu zinttuan. Galtzapian agirin nazkan ne ankazutar gaxte ta goxuaidi beida. Baño begiyaik etzian mozkorranak, Joxe Manuel. Eo baldin bazian, pasiyoz mozkortutako baten begiyak zian.

Alaxe ba, paraisoko fruta proibittua zukutzen jardun giñan aurrena kupul batea ta geo bestea, arik eta deskuidu batian, iñork ikusten ez ginttula ondoko ikuilun itxoiteko esan ta andik gutxia; zu zinbili-zanbala etorrita, bertan bi alimali biurtu giñan arte.

Zue teatruko personajiak, “Txirritak”, ez omen du sekula lanik pulamentuz eiñ, ez baserriyik gobernatu ta ezta emakumeik ezautu’re. Nekin ordia, zue loritasunian lan fiña ein dezu, earki gobernatzten dezu mingaña’re orroko ortan , baño emakumian asuntun... ezin nezake kontrakoik esan!!

Nik, Txilibitaneko Pedrotxok, esango nuke Joxe Mielek emakumian biarrik eztula sekula izan. Ta ne esku bado, emendik aurrea eztezun biarko itza emateizut. Ta laxter dezun “Berso-gudu” ortan, gustua badezu beintzat; ni onduan artuta agertuko zea, begiyen bistan dana eonagatikan e, iñork ez baitu ezer ikusiko;oain artian bezela. Au, bizi deun au, gue artekua baita.

Ta biyotzez maittatzia zer dan eztakiten aik, usteko due guria eztala ezer, usteko due launtasuna dala, usteko due guria bersolai-trikitilai artu-eman soila dala... Ta ala, pasako dia gue aurretik argiñ andaluzak, jakintsuk, baserritarrak, ilustriak... ta pasako dia gue aurretik; bat, amar, berrogei eo beste larogei...ustian!!

TXILIBITA BASERRIKO PEDROTXO